

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Antzerki taldeak asteburu honetan Katramila egunaren bigarren edizioa ospatuko du, Andoainen

2017ko maiatzaren 26a, 525 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

KATRAMILA

Gazte Festak Urnietan, asteburu osoan zehar

Ospakizunak ostiral arratsaldean hasi eta igande iluntzera arte luzatuko dira.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren ikuskizun berrienarekin emango diote hasiera aurtengo Gazte Festei. Sarrerak salgai izango dira ohiko tokietan, eta baita egunean bertan ere arratsaldeko 16:30etik aurrera Egape ikastolako atarian. Euskara ardatz duen ikuskizuna da eta urnietarrak adi egon daitezela, ikuskizunaren amaiera aldera herriko eragile ezberdinak igoko baitituzte taula gainera. Egapetik asko eta asko San Juan plazara joango dira iluntze



Egape dantza taldeko kideak jaien hasierako ospakizunean parte hartuko dute.

aldera, buruhandi, erraldoi, txaranga eta dantza saioarekin jaien hasiera ematen dieten txupinazoa botako baitute.

Gauean, Poxta Zahar taldeak moztorro festa eta afaria antolatuko ditu jaien hasiera dibertigarria izate aldera.

Poxta Zahar taldeak moztorro festa eta afaria antolatuko ditu jaien hasiera dibertigarria izate aldera

Larunbatean hitzordu ugari iragarrita daude: Urnieta dantzan jaialdiaren XI. edizioa, herri bazkaria, mentalismo saioa, elektrotzaranga, kaledantza ekimena, kontzertua...

Igandea txistulariekin abiatuko da, eta ondoren haur jolasak eta Txanbolinen kontzertu berezia izango dira. Arratsaldean erraldoi eta buruhandien kalejira, Trakets taldearen emanaldia eta jaien amaierako suziria.

[URNIETA, 4-5. ORRIALDEAK]

Aukerarik gabe geratu dira



Nahi baino lehenago, baina lehiaketan oso urrutira iritsita, Urnietako eskubaloi taldeak denboraldi bikaina burutu du.

[KIROLAK, 11. ORRIALDEA]

Iruntxiberri omenduko dute



2017ko Kirol Astearen protagonista nagusia izango da, omenaldia jasoko baitu.

[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]

Kirol egokitua

Larunbat honetan, Goikoplazan, kirol egokituaren jaialdia.

[KIROLAK, 10. ORRIALDEA]

Gobernu taldeak lehen bi urteetako agintaldiaren balorazioa egin du

Joan zen maiatzaren 24an bi urte bete ziren Udal hauteskundeak egin zirenetik, eta agintaldiaren erdialdean Udal gobernu taldeak balorazioa egiteko agerraldia deitu zuen. EH Bilduko Ana Carrere izan zen bozka gehien jaso zuen hautagaia, eta gerora bera izan zen alkate kargua hartu zuena. Polemika bizia piztu zen egun haietan, Euskadin indarrean

zegoen EAJ-PNV eta PSE-EE alderdien arteko hitzarmena bete ez zelako. Gauzak horrela, Andoainen bozka gehien jaso zuen alkategaiak hartu zuen aginte-makila.

Agintaldi honetan egoera ekonomikoa onbideratzen ari da. Horrez gain, gizarte mailako neurri berriak hartu dituzte.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]



Andoaingo EH Bilduko kideak dira gobernu taldeko kideak.



GONBIDAPENA

Produktu ekologikoen, bioeraikuntzaren, energia berriztagarrien eta kontsumo arduratsuen azoka

Hitzaldiak, tailerrak eta denontzako aktibitateak • Bioeraikuntza eta efizientzia energetikoa • Osasun eta ongizate jasagarria • Yoga day • Bioterraza • Biobeautey Gunea • Show cooking • Haurrentzako aktibitateak • Zozketak...

Sarreraren prezioa gonbidapen gabe: 3€ (12 urte arte doan)

2 · 3 · 4

Ekaina **FICOPA IRUN**

EKO ESPERIENTZIA BIZI EZAZU!

bioterra.ficoba.org

Ficobara, zatoz trenean!
Irur-Ficoba geltokia
euskotren

ANTOLATZAILEA
FICOPA
IRUN, GIPUZKOA
www.ficoba.org

P dohainik

HEZKUNTZA

Bilboko Zientzia Azokatik saria eskuan itzuli ziren

Zientzia eta teknologiaren arloetan ikertzaile iaioak diren gazte askok ikasten dute Salesiar ikastetxean, eta ikasturtean zehar hainbat egitasmo lantzen dituzte.

Elhuyarrek Bilbon joan zen maiatzaren 6an antolatu zuen Zientzia Azokan hainbat lan aurkeztu zituzten eta horietatik bi talde saria jasota itzuli ziren Urnietara.

Janari dendetan topatzen ditugun fruta eta barazkiei buruzko informazioa telefono mugikorren bitartez lortzeko aplikazioak jaso du sarietako bat, egindako "komunikazio lanagatik". Sergio Galvez, Laura Campos, Ane Otaegi eta Iker Perez ikasleak dira bere egileak. Beren hitzetan, "Web orri bat eta QR kodean oinarritutako aplikazio bat diseinatu ditugu. Webgune horretan barazki eta fruituei buruzko informazioa sartu dugu; alegia, produktu hori non ekoiztua den, zein ibilbide egin duen ekoizti den tokitik saltokiraino (Google maparen bitartez), bide horretan prozesu kimikorik ezarri ote zaion, zenbat kilokaloria, karbono-hidrato edo proteina daukan... Era horretan, mugikorraren aplikazio hori daukan kontsumitzaileak produktu zehatz baten QR etiketa eskaneatzen badu, gure web orriarekin egingo du bat, eta pantailan aipatu informazio hori dena aterako zaio. Azken batean, kontsumitzaile horri eskura jartzen zaio bestelakoan erosketak egitekoan edukitzen ez duen informazioa, gero berak erabaki dezan zer erosi, zer ez".

Lau produktuekin jarri dute erabilgarri aplikazioa: banana, piña, sagarra, eta kalabazina. Sagarrarekin (golden smith), adibidez, deskubrimendu bixiak egin dituzte: "Suitzako Alpeetan ekoizten dira, eta guregana heldu aurretik Valentziako lantegi batera eramaten dituzte, bertan osasunarentzat kaltegarria den argizaria eman diezaieten eta horrela distira eduki dezaten. "Sagarrari laban batekin argizari hori kentzen badiozu, plastiko usaina hartzen diozu".

Bertako produktuen balioa azpimarratzeko helburuz egin dute proiektua, batez ere. "Normalki naturalagoa da bertan ekoiztutako produktua, ez zaio tratamendu kimikorik eza-



Zutik Jon De Lucas, Asier Agudo, Naroa Morales eta Manex Lezaun. Eserita, Sergio Galvez, Laura Campos, Ane Otaegi eta Iker Perez Urnietako Salesiar ikastetxeko ikasleak. Haiekin batera, Asier Irazusta irakaslea.

rri behar gehiago irauteko saltokietan".

MUGIKORTASUN MURRITZEKOEI LAGUNTZEKO APLIKAZIOA

Hatzetan mugikortasun arazok dituen pertsona batek telefono mugikorra hatz bakar batez erabiltzeko aplikazioak jaso du bigarren saria Bilboko Zientzia Azokan. Epaimahaikideek "lan taldearen aniztasuna" azpimarratu dute horretarako. Jon De Lucas, Asier Agudo, Naroa Morales eta Manex Lezaun ikasleek osatzen dute taldea.

Mugikorrari botoien dispostibo elektronikoa bat jarri diote, eta horri esker bere erabiltzaileak deiak hatz batez, automatikoki egin ditzake. Lau botoi handi programatu dituzte, erabiltzaile horren beste hainbeste telefonoetara hots egiteko. Nolanahi ere, prototipoa da aplikazio hori, eta nahi izanez gero, konplexuagoa egin daiteke nahi adina botoi jarritz.

Asmakuntza praktikara era-

man dute, lantaldeko Naroa Moralesen izebari jarri diote eskura aplikazio hori, mugikortasun arazoak baititu. Diseinua lanketari ekin ziotenean, merkatuan zer zegoen ikusi nahi izan zuten: antza denez, Stephen Hawking fisikoak erabiltzen du antzeko aplikazio bat, baina oso garestia da. Salesiarretako ikasleek diseinatu dutenak, aldiz, ezinduei laguntzeko borondatea eta irudimena besterik ez du eskatzen.

GIZARTEAREN PREMIEN BEGIRA

Asier Irazusta da saria jaso duten bi talde horien eta beste hamar proiektu gehiago diseinatu dituzten ikasleen irakasle eta tutorea; Lierni Goenaga, beste hiruena. Tailerreko Jesus Urain eta Arkaitz Goñi irakasleen laguntza ere jaso dute ikasleek beren proiektuak egin ahal izateko. Irazustak adierazi duenez, "Proiektu zientifiko eta teknologikoak aurkeztea da Elhuyarren azokaren baldintza,

eta gure ikastetxeak beste baldintza bat eranstean die ikasleei, diseinatzeko orduan kontuan hartzea gizartean dagoen arazoren bat konpontzeko balio beharko duela. Ez izatea, besterik gabe, bideo-jokoren bat, edo dirua irabazteko ez dakit zer beste asmakizun".

Salesiarrak ikastetxeak ikasleak bigarren urtez animatu ditu azokan parte hartzera, eta esperientzia ezin baikorragoa izan dela ziurtatu du Irazustak: "Balio ugari lantzen dituzte ikasleek prozesuan zehar; irudimena eta sormena abian jartzeaz gain, elkarlana, informazioa biltzeko trebetasuna, adituekin eta proiektuaren premia daukaten pertsonekin harremanak egiteko aukera, proiektua aurkezteko behar den komunikazio gaitasuna, jendaurrean hitz egiteko lotsa kentzea...".

Jakina, ez zaie burutik pasatzen ikasleek diseinatzen dituzten proiektu horiek merkaturatzea.

HAINBAT EGITASMO

Salesiarren ikastetxeko ikasleek beste hainbat proiektu aurkeztu zituzten Bilboko Azokan:

1. Telefono aplikazioa itsuentzat. Kaleko semaforoaren informazioa helarazten dio mugikorrera; bibrazioa egiten dio kolorearen arabera.
2. Sentsorea pertsona itsuentzat. Bidean dauden oztopoak adierazten dizkio, zarata baten bidez.
3. Kamera detektatzailea. Itsua atletismo pista batean korrika dabilela, kamera batek ezkerreko edo eskuineko marra gainditu duen ala ez adierazten dio.
4. Sentsorea txirridularientzat. Sentsoreak atzetik hurbiltzen ari den autoa detektatu eta txirridulariari bizikletaren esku lekuan jarritako argiarekin adierazten dio.
5. Energia elektriko sortzailea, errefuxiatuen eremuei begira. Generadore elektrikoak bizikletari eranstean zaio, eta erabili ahal batera kargatzen da.
6. Material birziklatuarekin egindako errota batekin energia elektrikoak sortu.
7. Liztor asiarrak harrapatzeko sistema. Eltxetxu modukoa da, bertan liztorrak harrapatuta gera daitezten.
- 8-9. Bullying eta depresioaren aurkako bi telefono aplikazio. Informazioa, iradokizunak, gomendioak, musika...
10. Gauean logelako argia aurretiko sistema. Haurra esna dagoen bitartean piztuta dago gelako argia. Lo hartzen duenean, sistemak itzali egiten du argia.
11. Ateak gurutzatu behar eta ezin duten pertsona ezinduentzat, atek automatikoki irekitzen dituen sistema.
12. Etxeko argiak mugikorraren bitartez itzaltzeko sistema. Robotikako sistemak informazioa bidaltzen du etxeko argien egoera adieraziz, eta nahieran argiak piztu ala itzali litezke.



7 EURO. AIURRIN SALGAI

Purritx, Porrotx eta Marimotots



Aiurri

URNIETA

MAIATZAK
26
OSTIRALA

17:30

EGAPE IKASTOLAKO
JOLASTOKI ESTALIA

SARRERAK SALGAI:

URNIETA XAUXAR, BIKAIN KAFETEGIA | ANDOAIN ERNAITZA, AIURRI | EGUN BEREAN 16:30ETIK AURRERA

GAZTE FESTAK 2017 URNIETA

Festen abiapuntua, pailazoen urteroko bisitaldiarekin



Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizun berrienaren une batean.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek 'Tipi-Tapa Korrika' ikuskizuna eskainiko dute ostiral honetan Egape ikastolako jolastoki estalian, arratsaldeko 17:30ean hasita. Aurtengo Gazte Festen hasierako ekitaldia izango da, eta beste behin ere Euskal Herriko pailazo ezagunenak ikuskizun berriena eskaintzera etorriko dira. Euskara ardatz duen ikuskizuna da, Korrika bi urtez behin egiten den ekimenarekin lotuta.

Hiriburu ezberdinetako jaietako ikonografia txertatuko dute saioan zehar. Hartara, Donostiako Piratak, Bilboko Marijaia edota Gasteizko Zeledon igaroko dira taula gainetik. Sorpresatxo bat gordeko dute ikuskizunaren amaierarako, Urnietako talde eragileetako bati loturikoa.

Sarrerak egun berean ere salgai izango dira, 16:30etik aurrera Egape ikastolaren kanpoaldean.

Gaztetxo eta helduen mailako argazki-rallya, larunbatean



Hitzordu klasiko bilakatzen ari da argazki-rallya Urnietan, 25. ediziora iristear baita.

Argazkizaletasuna sustatzeko hitzordua larunbat honetan da. Parte hartzaileek zazpi gai landu beharko dituzte: kontrol argazkia, autoerreturatu, argazki librea eta antolaketa egunean bertan jakinaraziko dituen beste lau gai gehiago. Argazkiak JPG formatuan Bertan bulegoetan aurkeztu beharko dira ekainaren 1ean. Sari banaketa ekitaldia ekainaren 14an izango da, 19:00etan Lekaion.

ARGAZKI RALLYA | Maiatzak 27, larunbata
Izen ematea: 09:30-10:00. Lekaio.

Bi maila: 14 urte arte, helduak.

1. argazki bilduma: 200 euro, garaikurra.

2. argazki bilduma: 100 euro, garaikurra.

1. bilduma (Urnietarra): 100 euro, garaikurra.

2. bilduma (Urnietarra): 50 euro, garaikurra.

Argazki onena 1. saria: 100 euro, garaikurra.

Argazki onena 2. saria: 50 euro, garaikurra.

Haurren maila: 3 sari bilduma onenentzat.

*Lehiaketan parte hartzeko oinarriak: Urnieta.eus

Maiatzak 26, ostirala

17:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Egape ikastolako pilotalekuan, Iñistorra elkarteak antolatuta. Sarrerak egunean bertan salgai, 16:30etik aurrera.

17:30 Jokoak-Gymkana herrian zehar, Poxta Zaharrek antolatuta.

18:00 Gaztelekuak antolatutako bidezko merkataritzako txokolatada Plazido Muxika plazan.

19:00-20:00 Herriko buruhandi eta erraldioen kalejira, Plazido Muxika plazatik San Joan plazara, Bosko Anitz txarangarekin.

20:00 Jaiei hasiera emateko txupinazoa, udaletxean. Ondoren, Egape dantza taldeko dantzarien emanaldia.

20:15-21:00 Bosko Anitz txarangaren kalejira, San Joan plazatik abiatuta.

21:00 Koloretako picnic-afaria Poxta Zaharrek antolatuta, Egape ikastolan.

24:00-2:00 Elektro txarangaren kalejira.

Maiatzak 27, larunbata

09:30-10:00 Urnietako XXIV. Argazki Digital Rallyaren izen ematea Lekaio kultur etxean.

Oinarriak: www.urnieta.eus

10:00 Diana, Txanbolin txistulari bandarekin.

10:00-13:30 Puzgarriak eta jokoak txikientzat Egape ikastolako jolaslekuan.

GAZTE
FESTAK
2017
URNIETA

Maiatzaren 26tik 28ra.

Urnietako
udala

XI. URNIETA DANTZAN

JAIALDIA EGAPE DT-K ANTOLATUTA

11:00 Dantzarien topagunea Egape ikastolan; jarraian saioak herriko plaza eta kaleetatik zehar.

12:00 Txikien saioa San Joan plazan.

13:00 Emanaldi berezia denen guztien parte hartzearekin Plazido Muxika plazan (Eguraldi txarrarekin Kiroldegian).

12:00 Poteoa gurpil gainean, Poxta Zaharrek antolatuta.

14:00-16:30 Herri bazkaria Idiazabal kalean, Poxta Zaharrek antolatuta.

16:30 Jokoak Idiazabal kalean Poxta Zaharrek antolatuta.

18:00-19:00 Inoiz irakurri al dizute adimena? Bada garaia orduan! Jon Zabal mentalistaren "Medium" ikuskizuna.

Helduentzat saioa gaztelez, San

Joan plazan. Eguraldi txarrarekin Sarobera aldatuko da.

18:00-20:00 Elektro txarangaren kalejira Idiazabal kalean.

18:30 Kaledantza ekimena. Idiazabal kalean hasera emango zaio dantza herriko saioari. Jarraian, beste kaleetan zehar zabalduko dira dantzak.

23:00-3:30 Kontzertuak Egape ikastolan Poxta Zaharrek antolatuta: Azken tren, Kalera eta DJ Txankleta.

Maiatzak 28, igandea

10:00 Diana, Urnietako Txanbolin txistulari bandarekin.

11:00-14:00 Gazteentzat jolas parkea Plazido Muxika plazan (Eguraldi txarrarekin Egape ikastolan).

12:00 Txanbolinek eskainitako kontzertu-dantza emanaldia.

17:30 Herriko erraldoi eta buruhandien kalejira, San Joan plazatik Plazido Muxika plazara.

18:30 Trakets taldearen erromeria, San Joan plazan.

21:00 Jaiei amaiera.

OHARRAK

ERREPIDE MOZKETAK: Idiazabal kalean ostiral gaueko 24:00etatik goizeko 02:00ak arte eta larunbatean arratsaldeko 14:00etatik goizeko 02:00ak arte. Autobus geltoki bakarria izango da Denda Berri zahar-etxeko biribilgunean errepide mozketak dirauen bitartean.

FERIAK: Haurrentzako feriak probalekuan.

GAZTE FESTAK 2017 URNIETA

Urnieta Dantzan jaialdia larunbat osoan zehar



Iaz Plazido Muxika plazan eskaini zuten saio nagusiko argazkia.

Kultur eta ospakizunei dagokionez, sekula hutsik egiten ez duen eragileetako Egape dantza taldea da. Aurtengo jaien hasierako txupinazoan saio berezia eskainiko dute, iluntzeko 20:00etan. Eta jaietako azken egunean ere, igandean alegia, Txanbolinen emaldian parte hartuko dute. Jaien hasiera eta amaiera artean, eurentzat urteko egunik garrantzitsuenetakoa dena ospatuko dute: Urnieta Dantzan jaialdia.

URNIETA DANTZAN | Maiatzak 27, larunbata

11:00 Dantzarien topagunea Egape Ikastolan.
11:45 Kalejira kalez kale, plazaz plaza.
12:00 Txikien emanaldia San Joan plazan.
13:00 Jaialdi Nagusia Plazido Muxika plazan.
14:30 Dantzarien bazkaria Egape Ikastolan
18:30 Kaledantza, Idiazabal kaletik barrena. Ekitaldi irekia herritar orori, "dantzatzearen esperientzia bizitzeko aukera eskaini nahi diegu herritarrei, dantza gozatzeko gidatutako koreografiA errazen bidez".

Batman pastela, Marvel opilak eta irudimenak eman lezakeena



Poxta Zahar taldeak ekimen ezberdinak antolatu ditu Gazte Festetan.

Mozorro festa eta afaria antolatu ditu ostiral honetarako **Poxta Zahar** taldeak. Izena eman duten 18 taldeek dagoeneko jakin badakite fikziozko zein pertsonaia irudikatu behar duten. Eta, horrez gain, pertsonaia horren irudia afariko jakietan irudikatu behar dute. Antolatzailerik afarian giro dibertigarria sortze aldera bururatu zitzaizen ideia hori. Ono pasatzeaz gain, antolaketa sari ezberdinak banatuko ditu ostiral gauean

bertan. Mozorro festa horretan murgilduta, Elektrotxaranga taldeak dantzan jarriko ditu gazteak.

Larunbatean **herri bazkaria** egingo dute Idiazabal kalean. Txartelak eskuragarri daude Xauxarren, 10 euroko prezioan. Beganoak kontuan hartu dituzte, menua egiteko garaian.

Asteburu osoan zehar **Psikokiller** jokoak martxan izango da. Argibideak, Poxta Zahar taldeko FB orrialdean.



Gernikan lurperatutako gudari gipuzkoarrei omenaldia

AGOTE SANTAMARIA JACINTO
AGUIRREZABALA AZCARATE CASIMIRO
ZABALETA GUERRICO FRANCISCO
AROCENA ARRUBARRENA JUSTO
GARATE UNANUE MANUEL
IZAGUIRRE EPELDE JULIAN
LARRAÑAGA ALKORTA JOSE MARIA
ZUAZOLA BASTARRICA IGNACIO
LETAMENDI ELIZBURU NICASIO
AIZPURUA ARRIZABALAGA VICENTE
ANDONEGUI BALZOLA ISIDRO
COBEÑO CORTA JOSE
EZCURRA DIEREZ MIGUEL
GALARRAGA SEGUROLA FRANCISCO
IRURETAGOYENA IRIZAR ANTONIO

ANDOAIN
ANTZUOLA
ARETXABALETA
ASTIGARRAGA
AZKOITIA
AZKOITIA
AZKOITIA
AZKOITIA
BERGARA
DEBA
DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA (ALTZA)
DONOSTIA

LANZIEGO PEÑA BENEDICTO
SALABERRIA GUARROCHENA PEDRO
ZUBILLAGA AZPIOLEA PEDRO
ECHANIZ ASTIGARRAGA ANGEL
DOMINGO BERIAIN AUGUSTO
LETAMENDI ELIZBURU NICASIO
UGARTE URCELAY ESTEBAN
ALZUA GOICOECHEA JULIO
ELBERDI JOSE
OYARBIDE ELORZA JOSE
PRIETO PUERTAS FRANCISCO
SEGUROLA EGUA PEDRO
GOMEZ ELIZONDO MARIANO
QUIROGA DIEGUEZ JUAN
SAN VICENTE OLALDE FRANCISCO

DONOSTIA
DONOSTIA
DONOSTIA
ELGOIBAR
HERNANI
OÑATI
OÑATI
PASAIA
PASAIA
PASAIA
PASAIA
ERRETERIA
ERRETERIA
ERRETERIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gernikako hilerrian lurperatuta dauden 71 gudari gipuzkoar omenduko ditu datorren ekainaren 17an. Ondoren aipatzen diren gudarien familiekin kontaktuan jarri nahi du Foru Aldundiak, aipatutako ekitaldira gonbidatzeko.

Informazio gehiago: **943 112 290**.

Antzerkizaleen ospakizuna Katramila egunean



Katramila Andoaingo antzerki taldeko gaztetxoak, lazko edizioan.

Katramila Andoaingo antzerki eskolak urteko astebururik zirrargarrienari ekingo dio, jendaurrean hainbat lan eskainiko baititu. Helduen taldeak, Miren Gojenolaren zuzendaritzapean, ostiral ilun-tzean saioa eskainiko du Basteron. Eta larunbaterako egun osoko ospakizunak antolatatu dituzte: Haur antzerkia, bazkaria, ikasleen saioak...

Ikasturteari amaiera emateko egitarau oparoa.

HITZORDUAK

Maiatzak 26, ostirala:

- Kontukontero (Helduen saioa). Zuzendaria: Miren Gojenola. 20:00 Bastero.

Maiatzak 27, larunbata:

- "Amona Joxeparen istorioak" (Pata-ta Tropikala). Ondoren, kalejira. 11:00 Zumea plaza.
- Ikuskizun sorpresa. 13:00 Basteroko plaza.
- Bazkaria. 14:00 Ondarreta ikastetxean.
- Antzerki eskolako saioak. 16:30-18:30 Ondarreta.

Lore azoka larunbatean



Lore eta landare azoka, larunbat honetan Juanita Alkain plazan.

Udalak, Behemendik eta Dekolorek antolatuta, larunbat honetan lore eta landare azokaren edizio berria egingo dute Juanita Alkain plazan. Iaz bezala, hainbat postu ipiniko dituzte. Aurten, halere eskaintza osatu egingo dute eta loreak eta landareak eros-

teaz gain, beste hainbat produktu salgai ipiniko dituzte: Kosmetikako eta medikuntza naturaleko artisau-produktuak, sendabelarrak eta artisautea, oro har.

Maiatzak 27, larunbata

10:00-14:30 Juanita Alkain plaza.

Hogar Extremeño

Elkarteak ekainaren 9rako abesbatza eta dantza jaialdia antolatu du. Sarrerak

salgai daude, euro batean, Ernaitza eta Stopen, Orbel estankotan eta Elizondon.

Gipuzkoako zirkuitoko lehen txapelketa, patinetan

Txapelketa Ubitarteko pistari bueltaka



Gipuzkoako Irristaketa federazioak Gipuzkoako lehen zirkuitoko txapelketa antolatu du, Ubitarte futbol zelaiaren kanpoko pistan. Andoaingo izango da, beraz, probintzia mailako txapelketa.

Igande honetan, maiatzaren 28an, 10:00etan hasiko da txapelketa. Eguna osatze aldera, Eskola Kirola ekimeneko topaketa egingo dute eguerdiko 12:00etatik aurrera. Topaketa hori ere Ubitarten izango da.

Patinaia edo irristaketa indarra hartzen ari den kirol jardura da. Andoaingo edota Tolosan taldeak osatu dira. Trebaketa saioak eskaintzeaz gain, lehiaketak eta irteerak antolatzen dituzte.

Ekitaldiak antolatu dituzte datorren asterako

Andoaingo Fiare taldearen hitzaldia eta azoka

Bigarren urtez **Andoaingo FIARE taldeak** "Beste eredu ekonomiko bat, beste gizarte eredu bat" jardunaldiak antolatu ditu. Herritar antolatuen eskutik dagoen banketxea da FIARE, akzioak kooperatiba elkartean moduan eratu dena eta lankidetzaren eta elkartasunaren helburu duena.

Datorren asterako bi ekitaldi antolatu dituzte:

MAIATZAK 31, ASTEAZKENA HITZALDIA ETA SOLASALDIA

"Ekonomia alternatibaren eredu, hemen eta orain!". Beñat Irasuegi (Fiare) eta Nekane Martinez (Goienar). 19:00 Bastero.



EKAINAK 3, LARUNBATA EKONOMIA SOZIALAREN AZOKA

11:00 Juanita Alkain Plazan.

Andoaingo taldearen informazio puntua Gabriel Aresti 15

atzealdean kokatua dago. Hurrengo bilerak ekainaren 8an eta uztailaren 13an izango dira, 18:00etatik 19:30era.

943 303 770

fiare.andoain@gmail.com



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

JOAN ZEN MAIATZAREN 24AN BI URTE BETE ZIREN UDAL HAUTESKUNDEAK IZAN ZIRENETIK

Bi urteotako balorazioa egin du Udal Gobernu taldeak

Hartutako konpromisoak betetzen ari direla dio EH Bilduk, agintaldiaren erdialdera egin duen agerraldian. Egindakoari buruzko hausnarketa izan zen, gizarte eta azpiegitura mailako lorpenak nabar-

menduz. Aurrera begira ipini ziren ere, herrigunean datozen hilabeteetan egingo dituzten hainbat obren berri emanez. Alderdi ezberdinekin garatutako lankidetzak ere positiboki baloratu zituzten.

Alor ezberdinetan hartutako konpromisoak betetzen ari direla erakusteko, Andoingo Udal gobernu taldeak (EH Bildu) hainbat alorretan lorturikoa nabarmendu zuen:

- **Ongizatea:** “Andoaindarrak izan dira beti gure kezka eta gure lehenetsia. Gizarte babesean inbertsioa igotzen dihardugu urtez-urte”.
- **Garapen Agentzia:** “Prozedura norabide egokian doa. Lankidetzak hitzarmena sinatuta, edozein eskualdek dituen eskumen berberak ditugu”.
- **Berdintasuna:** “Berdintasun batzordea lanean ari da. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko beharrezko egitura sortu dugu”.
- **Ur azpiegitura sarea:** “Egindako interbentzioak emaitza onak ematen ari dira, matxurei dagokionez eta baita ur galeraren murrizketari dagokionez ere”.



Parte hartze prozesu berria deitu dute irailerako. Irudian, Andoingo Udal gobernu taldeko kideak.

- **Hondakinak:** “Datuak hobetzeko lehen urratsak ematen ari gara, bilketa sistema berriaren ezarpenarekin”.
- **Ekonomia:** “Gastu korronea nabarmen murriztu dugu, aurreko agintaldiko egoera ekonomikoa kaskarrari aurre eginez”.

HERRITARREN PARTE HARTZEA

Udal agintaldi honetan parte hartze prozesu ezberdinak antolatu dituzte, erakundea eta herritarra elkar lotu behar direla sinestuta. Laster gainerako alderdiek “Partaidetza ordenantza” eta “Gardentasun ordenantza” jasoko dituztela iragarri zuten.

Eta uda osterako, “Andoain auzo auzo” parte hartze prozesuaren edizio berria martxan jarriko dutela iragarri zuten. Irailaren 18tik 27ra Andoain barrera ibiliko dira informazioa banatzen eta auzotarren ekarpenak biltzen.

Obra ezberdinak martxan jarriko dituzte

Agintaldian orain arte egindakoaz gain, etorkizunera begira jarri ziren. Hainbat eraberritze lan iragarri zituzten, ostegun honetako Udal batzaraldian onepenera eramango dituztenak: Kale Nagusiko ur hoditeriaren azpiegitura sarearen eraberritzea, Makaldegian merkatu azokan WC publikoa eraikitzea edota Udal artxiboaren kokapen berriarekin abiatzea. Horiez gain, Eskola kale-

ko semaforoaren ondoko matxura konpontzea, haur parkeak berritzea edota kanposantuko eraikinean konponketa lanekin abiatzea.

Agerraldi berean Sorabillako saneamenduari ere ekingo diotela iragarri zuten. Azken obra hori Ur kontsoltzioak finantzatzeko aukera asko daude, Foru Aldundiko dirulaguntza baten bidez egingo lukeena.

Bizikidetzak eta alderdi ezberdinen arteko lankidetzak

Gobernu taldeak, bi urteotan, egitasmo asko alderdi ezberdinen babesarekin atera ditu aurrera. Besteak beste, Udal aurrekontua. Ana Carrerek bere agerraldian elkarkidetzak hori emankortzat jo zuen. Bi urteotako ibilbidea “alderdi ezberdinen arteko ulermena eta harremanak hobetuz egin ahal izan da. Eta, nola ez, herritarrek foro ezberdinetan izan duten parte hartzeari esker”.

Bake eta bizikidetzak mailan, Udal barruan alderdi guztien artean martxan jarri duten prozesua ere oso positiboki baloratu zuen: “Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoak utzi dizkigun ondorioen aurrean alderdien artean darabagun lana oso positiboki baloratzen dugu. Pentsaera eta jatorri ezberdina dugun alderdien artean izan dugun hartu-eman emankorra izaten ari da”.



AIURRI

EGUNEROKOAREN
JARRAIPIEN
ZEHATZA
WEBGUNEAN



“Etxola majikoa” antzezlan



Aktoreak lanean aurreko larunbatean, Lekaio kultur etxean.

“Etxola majikoa” antzeztu zuten Egape ikastolako gaztetxoek, joan den larunbatean. Guraso eta herritar ugari bertaratu zen Lekaio, eta gaztetxoek antzezpenearekin arratsalde polita igaro zuten. Obra “xarmagarria eta dibertigarria” izan zen, Joxemari Berasategi zuzendariak iragarri moduan. Lehen Hezkuntzako 25 ikasleak

trebezia handiarekin eta inongo lotsarik gabe mugitu ziren oholtza gainean, eta pozik hartu zituzten ikusleen txaloak, obra amaitu zenean. Antzezlan berriro ikusteko aukera izango da datorren ekainaren 16an, Saroben arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Dohainik da sarrera. Adin guztientzat aproposa da antzezlan.



Joxemari Berasategirekin ikasturte osoan trebatzen aritu dira ikasleak.



Egapeko Lehen Hezkuntzako 25 ikaslek parte hartu zuten.



Emanaldi berria eskainiko dute Saroben, datorren ekainaren 16an.

MusikaZuzenean jaialdi ederra Urnietako Saroben



Emanaldiaren amaieran kantari guztiak batera agertu ziren oholtzan, ikusleen txalo zaparrada jasotzeko. Argazki-bilduma ikusgai dago Aiurri.eus webgunean eta bideo sorta Musikazuzenean.com webgunean.

Eskertza MusikaZuzenean ekimena

“Pasa den igandean MusikaZuzenean webgunearen IV. Jaialdi Akustikoa ospatu genuen Urnietako Sarobe Arte Eszenikoen Gunean. Bertan, formatu txikiko hamabi musikari bildu genituen bi ordu iraun zuen jaialdi goxoan.

Lotura estua du gure egitasmoak Beterri eskualdearekin. MusikaZuzenean egitasmoa Andoainen jaio zen. Eta bertan du egoitza, Martin Ugalde Kultur Parkean. Duela urte batzuk Basteron ospatu genuen jaialdiaren bigarren edizioa eta musika argazki erakusketa ipini genuen bertan “Zuzeneko Instanteak” ekimenaren barnean, herrian, bestelako musika ekintzak egitearekin batera. Urtero iraila amaieran ospatzen dugun gure urteurren festa ere Andoaingo gaztetxean burutu ohi dugu.

Sarobe aretoa begiz jota genuen aspalditik. Areto dotorea da zinez. Edukiera polita du, eta musikaz gozatzeko baldintzak ezin hobekak dira. Gainera, orain badakigu bertako langileen prestutasuna zein den. Eskerrak eman beharrean gaudete: Sarobeko langileei eta Urnietako Udalari jaialdia bera antolatzeke eman dizkiguten erraztasun guztiengatik. Ezinbestekoa izan da, ere, Aiurrik eman digun babes. Emanaldiaren berri luze eta zabal eman du aldizkarian, asteakarian eta atari digitalean. Kulturak horrela behar luke beti, lankidetzak sortuz ekimenak elkarlanean gauzatu ahal izateko.

Musika izan zen igande arratsateko protagonista nagusia. Hamabi musika proposamen bildu genituen agertokian, gu-



Lear taldeko hirukotea maila handiko kantariekin batera aritu ziren Saroben.



Olatz Salvador donostiarra.



Libe Gasteizko kantaria.

rean formatu txikian ari diren musikariak bilduz. Esperientzia dunak, hala nola, Iker Lauroba, Etxe, Libe edota Maria Rivero. Horiekin batera bidea egiten ari direnak: Olatz Salvador, Nahia Zubeldia, Pelax edota Tristtan Mourguy. Eta horiekin guztiekin batera Urnietako Lear hirukote gaztea, eder eta goxo aritu zirelarik. Etorkizuna badugu gurean. Zorionekoak gu!

Aipatzekoa da bertan sortu zen giro bikaina. Musikarietako goxo jo ahal izan zituzten euren bi kantuarik, isiltasunean eta adi-adi zegoen areto bete

batean. Ohikoan jendea ez da ezagutzen ez dituen proposamenak ikustera joaten. Igandean hurbildu zirenek txalo zaparrada eskaini zieten kantariari, eta nabarmenezkoa izan zen jaialdia amaitzean ikusleen irribarrea aurpegietan.


Gure ekimena ez da ehunka lagun biltzen dituen horietakoa, afitxean batu genituen artistak ez baitira (oraindik) ezagunak. Beraz, eskerrak eman ere igande bero eta eguzkitsu batean gurekin bat egin zuten lagun guztiari. Arratsalde ederra izan zen. Esker mila bihotzez!”

La Batalla de Andoain
16 de septiembre 2017

La Bataille D'Andoain
16 septembre 2017

Die Schlacht von Andoain
16. September 2017

The Battle of Andoain
September 16, 2017



ANDOAINGO GUDUA



ANDOAINGO UDALA



Jordi Barri

Andoain 2017, irailak 16 larunbata

BEHAR ZAITUGU! EGIZU BAT GUREKIN! (656-782-521)

ZATOZ ANDOAINDAR!! Idatzi: bazkuna@larramendi.org



KIROL ALBISTEAK

Txirrindularitza proba Idiazabal kalean



Alebin mailakoekin abiatu zen txirrindularitza jardunaldia Urnietan.

Andoingo Txirrindulari Eskolak alebin eta infantil mailako lasterketa antolatu zuen Urnietako Idiazabal kalean, Urnietako Udalarekin lankidetzan. Elkarlan horri esker, urteko egutegian haur eta gaztetxoek trebatzeko lasterketa berria dute.

Maiatzak 20, larunbata Urnietan:

Infantil mutilak:

1. Dani Fursenko (Andoingo)
2. Aritz Garmendia (Oriako)

Infantil neskek:

1. Laiene Pikabea (Andoingo)
 2. Amaia Astarloa (Oriako)
- Argazkiak: Andoingo.eus



Alebin eta infantil mailakoen podiuma, lasterketa amaituta.

Judo erakustaldia Urnietan



Larunbat arratsaldeko argazki gehiago Aiurri.eus gunean ikusgai daude.



Kirol egokituaren jaia

Andoingo Batzokiak, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren eta Allurralde patronatuaren laguntzarekin, kirol egokituaren jaialdia antolatu du larunbat honetarako. Azken urteetan txirrindularitza probatan garapen handia izan ondoren, larunbatean proposamen berria eskainiko dute. Aipatzekoa da ekitaldirako Andoingo kirol elkarten partetik jaso duten inplikazioa: **SDR Euskalduna, Ganbara Sasaki Taldea, Gazteleku, Zumeatarra, Andoingo Txirrindulari Eskola** eta baita **Izartxo** aisialdi taldearena ere.

Horiez gain, laguntzaile lanetan arituko dira Gipuzkoako **Atzegi, Antigua Luberri, Fortuna, Kemen, Ostadar Saiarre, Pagazpe** eta **Mindara** kirol elkarteak. Antolakuntzatik ahalegin berezia egin nahi dute kirol egoki-



tua plazaratzeko eta herritarrengana hurbiltzeko. Kirolariak pozez hartzen dute jendearen harrera beroa, urte osoan zehar burutzen duten entrenamendu eta lanaren saria eta errekonozimendua baita. Andoingo hitzordua aukera paregabea da horretarako: "Kirol egokitua geureganatu behar dugu, egunero erronka berria gainditzeko lan egiten duten kirolari guzti horiek babestuz".

MAIATZAK 27, LARUNBATA

- 10:30 Areto futbol liga Goikoplazan.
13.30 Areto futboleko finala.
11.00-13.00 Mindara taldeak antolatuturiko jolasak.
16.15 Saskibaloa intelektualak.
16.15 Pilota partidak.
16.15-18.00 Ostadar taldeak antolatuturiko jolasak.
17.15 Gurrpil-aulkidun saski partida Goikoplazan.
18.00 Pilota intelektualak, finala.
18.30 Gurrpil-aulkidun pilota finala.

Iruntxiberri omenduko dute aurtengo Kirol Astearen

Leon Albeniz 'Iruntxiberri' herri kirolariak jasoko du aurtengo kirol merezimenduaren saria. Hori dela eta aurtengo Kirol Astearen herri kirolei aparteko tarte eskainiko die. Aurtengo egitaraua astelehenean aurkeztu zuten, Ubitarten. Mahaiburu aritu ziren **Ana Carrere** alkatea, **Ixiar Olano** Allurralde kirol Patronatuko zuzendaria, eta **Marijose Izagirre** EAJ-PNV eta **Ascen Parron** PSE-EE alderdie-tako ordezkariak.

EGITARAUA:

Maiatzaren 29tik ekainaren 4ra bitarte:

Maiatzak 29a, astelehena:

Pilotari profesionalekin jolasean. Goikoplazan 17:00etatik aurrera, Gazteleku elkarteak antolatuta.

Maiatzak 30, asteartea:

Gipuzkoako kirol egokituaren antolaketak eta hausnarketa. La Salle-Berrozpen, 19:00etatik aurrera Belkoain-Berri elkarteak antolatuta.

Ekainaren 1, osteguna:

Kirol Merezimenduaren saria. Basteron, 19:00etatik aurrera.

Ekainak 2, ostirala:


"Zer dakizu kirolaz?" sari banaketa ekitaldia. LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleei zuzendutako lehiaketa. Goikoplazan, 17:30etatik aurrera.



Kirol Astearen aurkezpen ekitaldia egin zuten, joan zen astelehenean.

LEON ALBENIZ IRUNTXIBERRI

Aian 1937an jaio eta aspaldiko urtetan Andoainen bizi den kirolaria da. Hamarkadatan herri kirolean oso atleta bikaina izan zen, eta kirol jarduera ugaritan jardun zuen lehiaketa zein eta apustu ezberdinetan. Hala nola, lasterketak, sega, aizkora... Bere biografia liburua aurkeztu zuen 2003. urtean, Auspoa argitaletxearekin. Egun, 80 urtetara iritsi egon arren, herri kirolari estuki lotuta dago kirolarien presatzaile gisa.



2003an bere ibilbidea liburura eraman zuen.



KIROL ALBISTEAK

Txalo zaparrada merezi dute



Denboraldi borobila egin dute urnietarrek.

Amaitu da amets gozoa, nahi baino lehenago. Baina ezin ahaztu egindako bidea oparoa izan dela. Eta garrantzitsuagoa dena, luzaroan oroimenean geratuko direla eskubaloiko mutilek askorengan piztutako ilusioa eta gorritxoekiko atxikimendua.

Urnieta Balerdi Harategia Bigarren Nazionalerako play offaren azken jardunaldira aukerakin iritsi zen. Azken lauko finala hain gertu eduki arren, partida irabazi beharra zegoen. Gorritxoak, aldiz, igande arratsaldean Sopelatik esku hutsik itzuli ziren. Urnietarren partida ondo hasi zen, defentsa sendo eta joko erasokorreakin nagusitasuna erakutsiz.

*“Taldeak urnietar zaleak bereganatzea lortu du bere jarrera eta jokoarekin”
UKE taldeko zuzendaritza*

Baina defentsan maila apur bat jaitsi eta etxeok abantaila hartu zuten markagailuan. Atsedenaldira 17-11 iritsi ziren. Bigarren zatian tartea are gehiago handitu zen eta amaieran markagailuak 37-27 irudikatu zuen.

Porrot mingarria jokalarientzat. Azkenean Ordiziak, Ereintzak, Egiak eta Ugeragak jokatuko dute igoerako play-offa. Lastima, mailaren pareko baitira ia talde guztiak.

Klubak taldea zoriondu nahi du “egindako denboraldiagatik, Gipuzkoako Ligan txapel-dun-orde izateaz gain senior mutilen taldearen historian lehenengo aldiz Bigarren Nazionalerako igoera faserako sailkatu direlako. Taldeak urnietar zaleak bereganatzea lortu du bere jarrera eta jokoarekin”.

SOPELA 37-27 URNIETA

Victor Rodriguez, Iosu Irigoyen, John Sanchez (7), Beñat Senperena (7), Egoitz Carracedo (6), Eneko Urruzola (3), Borja Rodriguez (2), Gorka Vicente (2), Julen Garcia, Iñaki Ibañez, Erlaitz Arrieta, Xabier Irastorza, Iosu Pagola, Iñigo Perez, Ander Berrotaran, Xabat Salaberria.

ITURZAETAREN OMENEZKO PALA TXAPELKETA HERRIKOIA



Ostiral honetan, 19:30ean hasita, emakumezko bikoteak lehiari arituko dira. Eta larunbatean, goizeko 10:00etan hasita, nagusiki mutilak arituko dira Sorabillako pilotalekuan.



Ganbara play-offean



Zaletuen babesa izan zuten andoaindarrek Elgoibarren jokaturiko partidatan.

Andoaingo saski taldeak bigarren mailatik lehen mailara igotzeko play-offa jokatu zuen aurreko asteburuan Elgoibarren. Ez ziren bakarrik egon, Andoaindik autobusa irten baitzen taldea animatzera. Larunbateko partida

irabazi zuen, igandekoa aldiz ez. Hala ere, denboraldia ontzat ematen dute taldeko arduradunek.

Goierri 69-75 Ganbara

Maiatzak 20, larunbata.

Elgoibar 83-76 Ganbara

Maiatzak 21, igandea.



Ganbarako kideak lehiari, Barren aldizkariak ateratako argazkietan.

Andoaingoen hasiera ona Berria Txapelketan



Andoaingo Gazteleku taldeak aurrera egin zuen eskuzko Berria txapelketan, Ultzamaiko taldeari 2-1 irabazi eta gero. Artola-Mujika eta Osa-Elizegi bikoteek aisa menderatu zituzten ultzamarrak kadete eta jubenil mailetan. Nagu-

sien mailan, ordea, Eskudero-Aizpuruk ezin izan ziren nafarrei aurre 22-5 galduz.

HERRIARTEKOA, PALA

Bide onetik doaz:
Ordizia 25-35 Andoain
Ordizia 28-40 Andoain

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etbez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu. publikitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 25TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Pailazoak

Urnietan

■ **Pirritx, Porrotx, Marimotots.** Sarrerak Urnietan salgai: Xauxar, Bikain. Egun berean, 16:30etik aurrera. 17:30 Egape. 7 euro. Maiatzak 26, ostirala.

Zinema

Andoain, Bastero

■ **"Piratas del Caribe"** estreinaldia
Lar, 27. 19:30-22:00. 3D
Ig, 28. 17:00, 19:30.
Astl, 29. 19:30-22:00.

Antzerkia

Andoain

■ Katramilaren hitzorduak asteburuan:
Maiatzak 26, ostirala: Kontukontero. 20:00. Bastero.
Maiatzak 27, larunbata: Katramila eguna.

Odol-emaileak

Urnietan

■ Anbulatorio zaharrea. 18:30-20:30. Maiatzak 30, asteartea.

Andoain

■ Anbulatorioan. 18:30-20:30. Ekainak 13, asteartea.

Festak

Urnietan

■ **Gazte Festak** Urnietan. Egitaraua: 4. orrialdea. Maiatzak 26, 27 eta 28.

Argazki-rallya

Urnietan, Lekaio

■ Gazte eta helduen mailako lehiaketa. 09:30-10:00 Izen-ematea. Maiatzak 27, larunbata.

Literatura

Andoain

■ "Estupor y temblores!, literaturj solasaldia. 19:00-20:30 Liburutegia. Maiatzak 30, asteartea.

Dantza

Urnietan

■ Urnietako **ballet eta sormen dantza** erakustaldia. 18:00 Sarobe. Maiatzak 31, asteazkena.
■ **Gazte Funky**koen ikasturte amaierako emanaldia. 19:30 Sarobe. Ekainak 2, ostirala.

Erakusketa

Andoain, Bastero

■ **Joserra Elorza** "Minus" mar-go erakusketa. Ekainaren 3ra arte zabalik.

Musika

Urnietan

■ **Kepa Junkera & Sorginak**, Maletak ikuskizuna. 21:30 Bastero. Ekainak 3, larunbata.

Deialdiak

Urnietan

■ **Egape ikastolaren** 50. urtereneko afaria. 20:30. Oianume jatetxea. Ekainak 2, ostirala.

Farmaziak

Andoain

■ **Diaz**. Kale Nagusia, 19. Gaez: **Etxebeste** (Hernani). Maiatzak 27-28.

Urnietan

■ **Aguado** (Astigarraga). Gaez: **Etxebeste** (Hernani). Maiatzak 27-28.

Deialdiak

Urnietan

■ **Poxta Zahar** taldeak bazkaria antolatu du. Txartelak Xauxarren salgai, 10 eurotan. Maiatzak 27, larunbata.
■ Gazte festaren ostean, ohiko ospakizun bilakatzen ari da **paella lehiaketa**. Bazkalostean poteoa iragarri dute. 12:00. San Juan plaza. Ekainak 3, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Andoni Rosco Muñozek 6 urte beteko ditu ekainaren 1an. Zorionak bihotza, muxu potolo asko etzekoen partetik!!

URNIETA

ZORIONAK



Oinatz Zatarain Korrotxanok 6 urte bete zituen hilaren 23an. Etxekoan eta bereziki Unaxeta Anerren partetik muxu handia.

ANDOAIN

ZORIONAK



Naia Iraola Sudepek 7 urte beteko ditu ekainaren 1ean. Zorionak printsesa etzeko guztien partez, eta muxu handi bat!

ASTEASU



OSO ERRAZA eta doakoa. Zorion agurrak Aiurri astekarian: diseinua@aiurri.eus www.aiurri.eus Whatsapp: 619 163 537

Gurutzetako ospitalean



Lau langile zauritu ziren Leaburuko Lizarra garbitegi industrialean gertatu zen leherketan, joan zen maiatzaren 18an. Andoaingo Goiburu auzoko Xabier Urretabizkaia da

horietako bat (argazkian, trikitixa eskuan); Gurutzetako unitate berezian ingresatuta jarraitzen duena. Gorputzeko zenbat zatitan erredurak dauzka, baina onbidean da.

Bazkunaren biltzar nagusia



Argitalpenak, saiakerak, kultur jarduerak,... hamaika egitasmo bideatu ditu Larramendi Bazkunak azken urteotan.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak bere urteko Biltzar Nagusia, XXIX.a datorren ekainaren 10ean egingo du, larunbatarekin, Andoaingo Bastero Kulturguneko Ekitaldi Aretoan, goizeko hamar eta erdietan (10:30) hasita. Biltzar Nagusia amaitu ondoren bertaratzen direnen artetik

nahi dutenak bazkaria egingo dute.

Dei berezia egiten zaie Andoain/Urnietan herrietako bazkideei etor daitezen, aurren Larramendi Bazkunak 25 urte beteko dituzenez zer aztertu eta eztabaidatua badagoelako. *Guztien indarra euskararen beharra da* aurtengo leloa.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA: EKAINAK 1, OSTEGUNA

Meza 10:30etan, 2017ko maiatzaren 28an

Erriaza izan zen zu maitatzea Ezinezkoa ordea zu ahanzte
Etzekoak

Demetria San Sebastian Eснаola
2016ko maiatzaren 28an hil zen, 89 urte zituela

Eskelak, heriotz oharrak, urteurrenak
Aiurri astekarian
943 300 732
diseinua@aiurri.eus